



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2022ko irailaren 7a

96. ZK.

A U R K I B I D E A

B SAILA:

Foru lege proposamenak:

—10-22/PRO-00015. Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatu egiten baita 19/2022 Foru Legea, uztailearen 1ekoa, Nafarroako administrazio publikoetan enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa. Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute (2. or.).

E SAILA:

Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:

- 10-22/ITP-00020. Interpelazioa, nekazaritza politika bateratuari buruzkoa. Miguel Bujanda Cirauqui jaunak aurkeztu du (5. or.).
- 10-21/ITP-00016. Interpelazioa, errepideetako plan gidari berria egiteko politika orokorrari buruzkoa. Interpelazioa erretiratzea (5. or.).
- 10-21/ITP-00039. Interpelazioa, Lizarrako Osasun Barrutiko Oinarrizko Laguntzako osasun arloko politikari buruzkoa. Interpelazioa erretiratzea (6. or.).
- 10-21/ITP-00045. Interpelazioa, Nafarroako kirolaren arloko politika orokorrari eta Nafarroako kirola digitalizatzeari buruzkoa. Interpelazioa erretiratzea (6. or.).
- 10-21/ITP-00054. Interpelazioa, etxebizitza babestuen arloko politika orokorrari buruzkoa. Interpelazioa erretiratzea (6. or.).
- 10-21/ITP-00061. Interpelazioa, kultur programazioaren arloko politika orokorrari buruzkoa. Interpelazioa erretiratzea (7. or.).
- 10-22/ITP-00008. Interpelazioa, gazteentzako etxebizitzaren alorreko politikari buruzkoa. Interpelazioa erretiratzea (7. or.).

H SAILA:

Bestelako testu arau-emaileak:

—10-22/DFL-00004. 4/2022 Legegintzako Foru Dekretua, uztailearen 5ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zergari buruz eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergari buruzko zenbait neurri hartu eta luzatzen dituen (8. or.).

B saila:
FORU LEGE PROPOSAMENAK

10-22/PRO-00015. Foru Lege proposamena, zeinaren bidez aldatu egiten baita 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, Nafarroako administrazio publikoetan enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege Organikoaren 19.1.b) artikulua aitortzen dien legegintzarako ekimena erabiliz, Nafarroako Alderdi Sozialista, Geroa Bai eta EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioek eta Nafarroako Podemos-Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteak aurkeztu dute foru lege proposamen bat, zeinaren bidez aldatu egiten baita 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, Nafarroako administrazio publikoetan enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa, eta presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetu dadin eskatu dute.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 110., 111., 148. eta 158. artikuluetan ezarritakoarekin bat, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

1. Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin foru lege proposamena, zeinaren bidez aldatu egiten baita 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, Nafarroako administrazio publikoetan enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa.

2. Foru lege proposamena presako eta irakurketa bakarreko prozeduraz izapidetzea.

3. Foru lege proposamen hori Nafarroako Gobernuari igortzea, Erregelamenduko 148. artikuluan ezarritako ondorioetarako, eta Nafarroako Gobernuari adieraztea bere iritzia emateko epea zortzi egunekoa dela.

4. Zuzenketak aurkezteko epe bat irekitzea, eztabaidari ekiteko Osoko Bilkuraren egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan bukatuko dena. Zuzenketak Legebiltzarreko Mahaiari aurkeztu beharko zaizkio.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

Foru Lege-proposamena, zeinaren bidez aldatu egiten baita 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, Nafarroako administrazio publikoetan enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa

ZIOEN AZALPENEA

2022ko uztailaren 14an argitara eman zen Nafarroako Aldizkari Ofizialean 19/2022 Foru Legea, uztailaren 1ekoa, Nafarroako administrazio publikoetan enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkortze prozesuak egiteko neurriei buruzkoa.

Aipatu foru legeak xedapen gehigarri bat dauka, hitzez hitz honela dioena:

“Hirugarren xedapen gehigarria. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak tramitatzen dituzten alde aurreko barne-egokitzapeneko prozedurei aplikatu beharreko arauak.

1. Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuaren eremuetan, arau honen 10. artikuluan ezarritako lekualdatze-lehiaketaren aurretik, alde aurreko barne-egokitzapeneko prozedurak deituko dira, eta horietan parte hartzen ahalko dute urriaren 20ko 11/1992 Foru Legearen eranskinean jasotzen diren estamentu eta espezialitate bereko enplegatu finkoek.

2. Prozeduren deialdian prozesuaren ezaugarriak jasoko dira, eta aplikatuko da Osasuneko kontseilariaren urriaren 28ko 129/2008 Foru Aginduan xedatutakoa (foru agindu horren bidez ezarri zen Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuaren alde aurreko barne-egokitzapen sistema arautzen duen prozedura berezia), honako salbuespen hauekin:

2.1. Hauek izanen dira prozesua egiteko epeak:

a) Parte hartzeko eskabideak aurkezteko epea: 7 egun baliodun.

b) 5 egun balioduneko epea izanen da alde aurreko barne-egokitzapeneko prozesuaren trami-teen kontra erreklamazioak aurkezteko, zer egin-tza edo ebazpenen aurka erreklamatu nahi den, hura argitaratu edo jakinarazten denetik zenbatzen hasita. Dagokion lan-eremuko Profesionalek Zerbitzuko buruari edo zuzendariari aurkeztuko zaio, eta hor erregistratu beharko da berariaz.

c) Erreklamazioak ebazteko epea 7 egun balio-duneko izanen da.

2.2. Deialdia eginen da, bakar-bakarrik, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek onesten duten enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzan sartzen diren lanpostuetarako. Ez dira eskainiko beste lanpostu bat lortzen duten izangaiek hutsik uzten dituztenak.

Aldez aurreko barne-egokitzapenaren ondoren hutsik geratzen diren lanpostuetarako deialdia eginen da foru lege honen 10. artikuluan ezarritako lekualdatze-lehiaketan.

2.3. Parte hartzen duten langile finko interes-dunen mugikortasuna gauzatuko da dagokien lan-eremuko estamentu eta espezialitate berean.

2.4. Aldez aurreko barne-egokitzapeneko prozeduran eskaintzen diren lanpostu hutsak betetzeko, lehentasuna izanen dute eskainitako lanpostu hutsaren estamentu eta espezialitate bereko lanpostu bat betetzen ari diren langileek, baldin eta destinoa badute egokitzapena egiten den oinarritzko antolamendu-unitatean. Gerta daiteke

egokitzapena eginen den antolamendu-unitatean langile batek baino gehiagok interesa izatea hizpi-de dugun prozedura honetan parte hartzeko; gerta daiteke, hala berean, prozeduran parte hartzeko interesa dutenek ez izatea destinoa egokitzapena egiten den oinarritzko antolamendu-unitatean. Horrelakoetan, eskaintzen den lanpostu hutsa esleituiko zaio antzinatasun aitorturik handiena egiaztatzen duen izangaieri.

Lehiakideak puntuetan berdindurik baldin badaude, ebatziko da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan eta haren erakunde autonomoetan zerbitzu ematen denbora gehien daramanaren alde. Berdinketak bere horretan badirau, zozketa bakar baten bidez ebatziko da. Berdinduta dauden izangai guztiei zenbaki bana emanen zaie, ordena alfabetikoaren arabera, eta zenbaki horietako bat aukeratuko da ausaz. Horrela, berdinketa guztiak ordena alfabetikoaren arabera ebatziko dira, zozketan atera den zenbakia duen pertsonaren abizenetatik eta izenetik abiaturik.

2.5. Aldez aurreko barne-egokitzapenean lehiakideei egokitu zaizkien lanpostuak esleitzeko ebazpena formalizatu egin beharko da foru lege honen 10. artikuluan aipatzen den lekualdatze-lehiaketa ebatzi aurretik.

2.6. Osasun arlokoak ez diren eta lehiakideei alde aurreko barne-egokitzapenean egokitu zaizkien lanpostuak esleitzeko ebazpena onetsi egin beharko da 2022ko abenduaren 31 baino lehen”.

Zehazki, 2.2 apartatuan kontuan hartzen da kanpo uztea Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuan lekualdaketa egin baino lehen, alde aurreko barne-egokitzapenerako deialdian “gelditzen” direnak, xedatzen baita lanpostuak betetzeko prozesu horietan ez direla eskainiko beste lanpostu bat lortzen duten izangaiek hutsik uzten dituztenak eta, halaber, alde aurreko barne-egokitzapenaren ondoren hutsik geratzen diren lanpostuetarako deialdia eginen dela lekualdatze-lehiaketan.

Halatan, deialditik kanpo uzteak Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuan alde aurreko barne-egokitzapenerako deialdian gelditzen direnak dakarren ondorioa da langile finkoek, atxikita dauden lantokian bertan mugikortasunaren eskubidea baliatu nahi badute, parte hartze mugatua edukiko dutela lanpostuak betetzeko prozesuan, ez dutelako aukerarik izanen ez alde aurreko barne egokitzapenean, ez geroagoko lekualdatze-lehiaketan “gelditzen” diren lanpostuetarako, hutsik geratzen direnean haien

titularrek aurreko barne egokitzapeneko prozesuetan parte hartzeagatik.

Foru lege honen xedea da barne mugikortasunaren eskubide osoa berreskuratzea, Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuan eta Nafarroako Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuan lanpostuak betetzeko prozesuen bidez, helburua izanik egonkorte prozesuek ez ekartzea langile finkoen eskubideen galerarik.

Artikulu bakarra. Uztailaren 1eko 19/2022 Foru Legearen aldaketa, Nafarroako administrazio publikoetan enplegu publikoan aldibaterakotasuna murrizteko presako neurriei buruzko abenduaren 28ko 20/2021 Legetik eratorritako egonkorte prozesuak egiteko neurriei buruzkoarena.

Bat. Hirugarren xedapen gehigarriaren 2.2 apartatua aldatzen da: Honela gelditzen da idatzita:

“2. 2. Deialdia eginen da Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta haren erakunde autonomoek onesten duten enplegu publikoa egonkortzeko eskaintzan sartzen diren lanpostuetarako eta aldez aurreko barne egokitzapeneko prozesu horietan parte hartzeagatik beste lanpostu bat lortzen duten izangaiek hutsik uzten dituzten lanpostuetarako.

Aldez aurreko barne-egokitzapenaren ondoren hutsik geratzen diren lanpostuetarako deialdia eginen da foru lege honen 10. artikuluan ezarritako lekualdatze-lehiaketan”.

Azken xedapenetako lehena. Indarra hartzea.

Foru lege hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta argitaratu eta biharamunean hartuko du indarra.

E saila:
INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK

10-22/ITP-00020. Interpelazioa, nekazaritza politika bateratuari buruzkoa.

MIGUEL BUJANDA CIRAUQUI JAUNAK AURKEZTU DU

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Miguel Bujanda Cirauqui jaunak nekazaritza politika bateratuari buruz aurkezturiko interpelazioa.

2. Interpelazio hori Osoko Bilkuran izapideztea.

3. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

INTERPELAZIOAREN TESTUA

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma (NA+) talde parlamentarioari atxikita dagoen Miguel Bujanda Cirauqui jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatzen denaren babesean, honako interpelazio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko:

Europako Batzordeak Espainiako 2023-2027rako NPE-Nekazaritza Politika Erkidearen Plan Estrategikoa berriki onetsi ondoren, honako interpelazio hau egiten da:

Europar nekazaritza-politikari buruzko interpelazioa.

Iruñean, 2022ko abuztuaren 1ean

Foru parlamentaria: Miguel Bujanda Cirauqui

10-21/ITP-00016. Interpelazioa, errepideetako plan gidari berria egiteko politika orokorrari buruzkoa.

INTERPELAZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Javier García Jiménez jaunak aurkezturiko interpelazioa erretiratu izanaz. Interpelazioa errepideetako plan gidari berria egiteko politika orokorrari buruzkoa

zen, eta 2021eko otsailaren 5eko 14. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-21/ITP-00039. Interpelazioa, Lizarrako Osasun Barrutiko Oinarrizko Laguntzako osasun arloko politikari buruzkoa.

INTERPELAZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Patricia Fanlo Mateo andreak aurkezturiko interpelazioa erretiratu izanaz. Interpelazioa Lizarrako Osasun Barrutiko Oinarrizko Laguntzako osasun

arloko politikari buruzkoa zen, eta 2021eko otsailaren 12ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-21/ITP-00045. Interpelazioa, Nafarroako kirolaren arloko politika orokorrari eta Nafarroako kirola digitalizatzeari buruzkoa.

INTERPELAZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Carlos Mena Blasco jaunak aurkezturiko interpelazioa erretiratu izanaz. Interpelazioa Nafarroako kirolaren arloko politika orokorrari eta Nafarroako kirola

digitalizatzeari buruzkoa zen, eta 2021eko otsailaren 12ko 19. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-21/ITP-00054. Interpelazioa, etxebizitza babestuaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

INTERPELAZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela María Aranzazu Biurrin Urpegui andreak etxebizitza babestuaren arloko politika orokorrari buruz aur-

kezturiko interpelazioa erretiratu izanaz. Interpelazioa 2021eko otsailaren 19ko 23. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-21/ITP-00061. Interpelazioa, kultur programazioaren arloko politika orokorrari buruzkoa.

INTERPELAZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Alberto Bonilla Zafra jaunak kultur programazioaren arloko politika orokorrari buruz aurkezturiko interpe-

pelazioa erretiratu izanaz. Interpelazioa 2021eko martxoaren 12ko 35. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

10-22/ITP-00008. Interpelazioa, gazteentzako etxebizitzaren alorreko politikari buruzkoa.

INTERPELAZIOA ERRETIRATZEA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Adieraztea jakinaren gainean dagoela Ángel Ansa Echegaray jaunak gazteentzako etxebizitzaren alorreko politikari buruz aurkezturiko interpe-

lazioa erretiratu izanaz. Interpelazioa 2022ko martxoaren 11ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

2. Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratzea.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

H saila:
BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK

10-22/DFL-00004. 4/2022 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 5ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zergari buruz eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergari buruzko zenbait neurri hartu eta luzatzen dituen.

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2022ko irailaren 5ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Gobernuak igorri du Tributu Harmonizazioari buruzko uztailaren 5eko 4/2022 Legegintzako Foru Dekretuaren ziurtagiria, balio erantsiaren gaineko zergari buruz eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergari buruzko zenbait neurri hartu eta luzatzen dituena.

Kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 53. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 162. artikuluan xedatutakoa, honako hau ERABAKI DA:

1. Adieraztea Tributu Harmonizazioari buruzko uztailaren 5eko 4/2022 Legegintzako Foru Dekretuaren berri izan duela, zeinaren bidez hartu eta luzatzen baitira balio erantsiaren gaineko zergari buruz eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergari buruzko zenbait neurri.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Erabaki hau Nafarroako Gobernuari jakinaraztea.

Iruñean, 2022ko irailaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

4/2022 Legegintzako Foru Dekretua, uztailaren 5ekoa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, balio erantsiaren gaineko zergari buruz eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergari buruzko zenbait neurri hartu eta luzatzen dituen

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren I. tituluan, Nafarroako tributu-araubidea Estatuko tributu-araubide orokorrarekin harmonizatzeko irizpideak arautzen dira.

Esparru horren barnean, aipatutako Hitzarmen Ekonomikoaren 31 bis eta 32. artikuluek ezartzen dute ezen, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga (aurrerantzean, EEEBZa) eta balio erantsiaren gaineko zerga (aurrerantzean, BEZa) ordainarazteko, Nafarroak aplikatuko dituela Estatuko lurraldean une oro indarra duten arau substantibo eta formal berak. Hala ere, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak zerga horien aitortzea eta ordaintzeko egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu, gutxienez ere lurralde erkideko datu berak edukiko dituztenak, eta likidazioaldi bakoitzean ordaintzeko epeak finkatzen ahalko ditu, Estatuko Administrazioak ezartzen dituenetatik funtsean aldendu gabe.

Bestetik, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak, 53.1 artikuluan, Nafarroako Gobernuaren araugintzarako ahalmena erregulatzean ezartzen duenez, baldin tributu-araubide erkidearen aldaketa batek behartzen badu estatuan indarra duten arau substantibo eta formal berak Foru Komunitatean aplikatzera Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat, Nafarroako Gobernuak behar diren foru lege mailako arauak eman ditzake tributu arloko foru legeak aldatzeko, Nafarroako Parla-

mentuak eskuordeturik. Nafarroako Gobernuaren xedapen horiei, aipatutako legegintzarako eskuordetzearen ondorio direnei, "tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu" izena emanen zaie, 14/2004 Foru Legearen 53.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz.

Estatuan, ekainaren 25eko 11/2022 Errege Lege Dekretuak, zeinak zenbait neurri hartu eta luzatzen baitzituen Ukrainako gerraren ondorio ekonomiko eta sozialei erantzuteko, kalteberatasun sozial eta ekonomikoko egoerei aurre egiteko eta La Palma uhartearen susperraldi ekonomiko eta sozialerako, batetik, zerga neurri berri batzuk hartu ditu, eta, bestetik, 2022ko abenduaren 31ra arte luzatu du aurreko errege lege dekretuetan adostutako beste neurri batzuen indarraldia.

Bereziki, EEEBZaren zerga-oinarriaren erregulazioa aldatu du, lotutako pertsona edo erakundeen artean eragiketak egiten direnean hura nola kalkulatu behar den aurreikusteko. Horrela, alderdien artean hitzartutako prezioa ezin izanen da merkatuko balioa baino txikiagoa izan, zeina sozietateen gaineko zergaren araudian aurreikusitako edozein balorazio-metodo aplikatuz zehaztuko baita.

Era berean, BEZaren ehuneko 4ko tasaren aplikazioa luzatu du erabili eta botatzeko maskara kirurgikoen entrega, inportazioa eta eskurapenetan, Europar Batasunaren barruan egiten direnetan.

Horrez gain, EEEBZaren etena luzatu du eta, luzapen berri horrekin bat etorritz, zerga-oinarria eta zergaren araudian araututako ordainketa zati-katuen zenbaketa aldatu ditu.

Azkenik, 2022ko abenduaren 31ra arteko ondorioekin, %10etik %5era murriztu du faktura elektrikoaren osagai guztien gaineko BEZaren zerga-tasa, 10 kW-eko potentzia-termino finkoa gainditzen ez duten kontratuetarako, fakturazioaren aurreko hilean handizkako merkatuan hileko batez besteko prezioa 45 euro/MWh baino handiagoa denean; bai eta elektrizitatearen hornidura-kontratuen titularren alde egindako horniduretako ere, baldin eta titular horiek bono soziala jasotzen badute eta, gainera, kaltebera larriaren edo gizarte-bazterketa arriskuan dagoen kaltebera larriaren izaera aitortuta badute, handizkako merkatuko elektrizitatearen prezioa edozein dela ere.

Nafarroako Foru Komunitatean, erabili eta botatzeko maskara kirurgikoen entrega, inportazioa eta eskurapenetan, Europar Batasunaren barruan egiten direnetan, BEZaren %4ko tasa murriztua 2022ko ekainaren 30era arte aplikatzeari buruzko neurria araututa dago Tributu Harmonizazioari

buruzko otsailaren 2ko 1/2022 Legegintzako Foru Dekretuan, zeinaren bidez aldatzen baitira balio erantsiaren gaineko zerga eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga. Bestalde, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga aldi baterako eteteari eta, 2022ko ekainaren 30era arte, elektrizitate-hornidura jakin batzuetarako balio erantsiaren gaineko zergaren tasa murriztua aplikatzeari buruzko neurriak araututa daude Tributu Harmonizazioari buruzko apirilaren 13ko 2/2022 Legegintzako Foru Dekretuan, zeinaren bidez luzatzen baitira balio erantsiaren gaineko zergarekin eta energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergarekin lotutako zenbait neurri.

Horregatik guztiagatik, tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu hau eman behar da, aipatutako zergei dagokienez Foru Komunitatean aplikatu daitezkeen Estatuan indarrean diren arau substantibo eta formal berak.

Horiek horrela, Nafarroako Gobernuak, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak bi mila eta hogeita biko uztailaren bostean egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATZEN DUT:

Lehen artikulua. Aldatzea 11/2015 Foru Legea, martxoaren 18koa, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga eta kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga arautzen dituena.

2022ko ekainaren 27tik aurrera ondorioak izateko, aldatzen da 11/2015 Foru Legearen lehen artikuluko zazpigarren.1 apartatua, eta hemendik aurrera testu hau izanen du:

"1. Zerga-oinarria izanen da energia elektrikoaren ekoizteagatik eta sistema elektrikoan sartzegatik zergadunak instalazio bakoitzeko eta zergaldi bakoitzean eskuratu beharreko zenbatekoa, energia elektrikoaren zentralerako barretan neurtua.

Horri dagokionez, zenbateko osoaren kalkuluan kontuan hartuko dira Sektore Elektrikoari buruzko abenduaren 26ko 24/2013 Legearen ezarritakoaren ondoriozko araubide ekonomiko guztietan aurreikusitako ordainsariak, kasuan kasuko zergaldikoak, baita berariazko araubide ekonomikoan aurreikusitakoak ere, uharteetako eta penintsulaz kanpoko lurraldeetan energia elektrikoaren ekoizteko eta sistema elektrikoan sartzeko jardueraz den bezainbatean.

Lotutako pertsona edo entitateen artean eragiketak egiten direnean, Sozietateen gaineko Zerga-

ri buruzko abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legean xedatutakoaren arabera, ordainsaria ezin izanen da merkatuko balioa baino txikiagoa izan. Merkatuko balioa hartuko da pertsona edo erakunde independenteek lehia askearen printzipioa errespetatzen duten baldintzetan erabakitakoa. Ondorio horietarako, merkatuko balioa zehazteko, abenduaren 28ko 26/2016 Foru Legean jasotako edozein metodo aplikatuko da.”

Bigarren artikulua. Zerga-neurrien luzapena.

2022ko uztailaren 1etik aurrerako ondorioekin, 2022ko abenduaren 31ra arte luzatzen da Sendagaien Prezioetarako ministerioen arteko Batzordearen 2020ko azaroaren 12ko Erabakian aipatzen diren erabili eta botatzeko maskara kirurgikoen entrega, inportazioa eta eskurapeneta, Europar Batasunaren barruan egiten direnetan, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 4ko zerga-tasa aplikatzea, Tributu Harmonizazioari buruzko urtarrilaren 13ko 1/2021 Legegintzako Foru Dekretuaren bigarren xedapen gehigarrian aurreikusia. Legegintzako foru dekretu horren bidez aldatzen da Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea.

Hirugarren artikulua. Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga-oinarria eta ordainketa zatikatuen zenbatekoa zehaztea 2022ko zergaldirako.

2022ko zergaldian, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zergaren zerga-oinarria hau izanen da: energia elektrikoaren ekoizteagatik eta sistema elektrikoan sartzeagatik zergadunak instalazio bakoitzeko eta zergaldi bakoitzean eskuratu beharreko zenbatekoa, energia hori zentralerako barretan neurtuta, kenduta ekitaldian sisteman sartutako elektrizitateagatik jasotako ordainsariak.

2022ko lau hiruhilekoei dagozkien ordainketa zatikatuak kalkulatzeko, epe horretan ekoiztutako eta sistema elektrikoan sartutako energia elektrikoaren balioa zero eurokoa izanen da, betiere energia hori zentralerako barretan neurtuta.

Laugarren artikulua. Energia elektrikoaren entrega, inportazio eta eskurapen jakin batzuetan, Europar Batasunaren barruan egiten direnetan, aplikatu beharreko balio erantsiaren gaineko zergaren zerga-tasa.

2022ko uztailaren 1etik aurrera ondorioak izateko, eta indarraldia, berriz, 2022ko abenduaren 31ra artekoa, balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 5eko zerga-tasa aplikatuko zaie Europako Batasunaren barruan honako alde egiten diren energia elektrikoaren entrega, inportazio eta eskurapenei:

a) Elektrizitatez hornitzeko kontratuen titularrak, potentzia kontratatua (potentzia-termino finkoa) 10 kW-ekoa edo txikiagoa denean, edozein dela ere horniduraren tentsio maila eta kontratazio mota, baldin eta eguneroko merkatuko batez besteko prezio aritmetikoa, fakturazio epeko azken egunaren aurreko azken hilabete naturalari dago-kiona, 45 eurotik gorakoa izan bada MWh-ko.

b) Elektrizitatez hornitzeko kontratuen titularrak, elektrizitatearen bono soziala jasotzen badute eta kaltebera larriaren edo gizarte-bazterketa arriskuan dagoen kaltebera larriaren izaera aitortua badute, Kontsumitzaile kalteberaren figura, bono soziala eta energia elektrikoaren etxeko kontsumitzaileak babesteko beste neurri batzuk arautzen dituen urriaren 6ko 897/2017 Errege Dekretuan ezarritakoarekin bat.

Azken xedapen bakarra. Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra, eta bertan aurreikusitako ondorioak izanen ditu.

Iruñean, 2022ko uztailaren 5ean

Nafarroako Gobernuako lehendakaria, María Chivite Navascués

Ekonomia eta Ogasuneko kontseilaria, Elma Saiz Delgado

